


Pitxerretik zerbitzatuko da sagardoa, denboraldi berrian

Ekoizleen lekukotzak, aurtengo txotx garaiaren xehetasunak... / 2-6



'Memoria eraikitzen' ekitaldi-sorta

Andoaingo Udaleko bizikidetza mahaiak bi ekitaldi iragarri ditu, datozen egunetarako: Ikus-entzunezkoa eta antzerki-foruma. Parte hartzeko deia luzatu dute / 15



Silvia Molano
dendaria: "Internet bidez enpresa bakarra aberats bihurtzen ari da" / 8



Xabier Arruti:
"Jendarteak txertoak adina behar ditu sagardoaren balioak: lagunartea, ilusioa" / 4





Petrítegi sagardotegia. ©PETRÍTEGI

COVID-19ak bigarren urtez zigortu duen sektorea

Euskal Herriko sagardozaleentzat berezia izan ohi da urte hasiera, izan ere, otsaila hastearekin batera ekiten diote sagardotegiek txotx denboraldiari. Alabaina, oso bestelakoa izango da aurtengoa

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Mikel Arberas ANDOAIN

Txotx egin nahi, eta ezin. Horixe da 2021aren hasieran sagardogileek eta sagardozaleek bizi duten egoera.

Xabi Altuna,
Altuna Sagardotegia

Betiko usadioari eutsita prestatu zuten joan den urtean txotx denboraldia Altuna sagardotegian. Xabi Altuna bertako kidea da: "Martxoa jada bete-betea genuen aspalditik". Nolanahi ere, gaztearen hitzetan, egun batetik bestera itxi egin behar izan zuten sagardotegia, pandemia dela medio. "Gogorra izan zen, izan ere, martxoan harrapatu gintuen egoerak, guretzat indar handiko hilabetea".

Sagardoaren zikloa errespetatzen duen sagardotegia da Altuna. "Zentzu horretan oso tradizionalak gara", dio urnietarrak, "eta ziklo hori hausteak ez zigun merezi, zerren, gerora, horrek eragina baitu gudan. Erabaki genuen denboraldia hortxe bukatu arren, zikloarekin jarraituko genuela".

Galera handia izan dute pandemia hasi zenetik. Ostalaritzan nabarmen saltzen dute, eta horiek itxi behar izateak eragina izan du. Halaber, sagardogilearen ustez, dendetan biderkatu egin da eskaria: "Astean eskari bakarra egitetik lau egitera igaro ziren asko. Nabarmenki igo zen hasieran, eta gerora, orekatu egin da".

Altuna sagardotegi txikia da. Gauzak horrela, sagardogileak uste du egoera honek bereziki negozio handiei eragingo diola, hots, langile asko dituztenei: "Alde onak ere baditu handia izateak, baina kasu honetan eragin zuzena izango du horiengan,

berdin baitu zenbat litro sagardo ekoizten dituzun, itxita eduki behar da-eta".

Axier Gaztañaga,
Gaztañaga sagardotegia

Andoaindarra ezkor agertu da etorkizunari begira; pasa den urtea gogorra izan dela nabarmendu du, eta datorrena ez dela asko aldatuko. Hala ere, Andoain eremu gorritik noiz irtengo zain daude, behintzat, sagardotegia ireki ahal izateko. Dena den, pandemiak sortu dituen kalteak handiak izan dira: "Galera handiak eduki ditugu eta edukiko ditugu. Sagardotegia itxita egonda ere, gastuak ordaintzen jarraitu behar dugu".

Egoera honi aurre egiteko, modu batera edo bestera, sagardotegia irekiko dutela azpimarratu du Gaztañagak. Sagardogilearen esanetan, batzuek hiru hilabetez soilik irekitzen dute, baina Gaztañaga sagardotegia urte osoz egonen da irekita, "geldik egonda ez dugu irabazirik edukiko".

Esanak esan, neurrien eta arauen gaineko ziurgabetasuna handia da. Hala adierazi du andoaindarrek: "Geuretzat eromena da, uneoro legeak aldatzen dituztelako. Oraintxe irekiz gero, agian, hilabetera berriro ere atek itxi behar ditugu. Ez da posible egun batetik bestera sagardotegia itxi behar izatea, eta salerosgaiekin zer egin ez jakitea".

Hala eta guztiz ere, guztia ez da negatiboa izan; pasa den urtean ia sagardo guztia saldu baitzuen Gaztañagak. "Lehenengo konfinamendua egin genuenean, familiei saltzen hasi ginen; egia esan, herritarrengandik harrera ona jaso genuen". Hori horrela, etxerako zerbitzua eskaintzen ari dira, "nik eramaten dut sagardoa etxeetara. Muga perime-



**egunean
behin**

- **400 lagunetik gora "Aiurri" taldean.**
- **Aste bakoitzeko sagardo kaxa bana zozkatuko da.**
- **Aiurri, eskualdeko ekoizleekin bat**



Xabi Altuna.



Axier Gaztañaga.



Jon Mike Arruabarrena (Mizpiradi).



Patxi Iribar (Oianume).



Xabi Ansa (Setien 'Moko').

trala amaitzean; lan gehiago edukiko dugunez, sagardo bila hona etortzeko eskatu nahiko genuke”.

Jon Mikel Arruabarrena, Mizpiradi sagardotegia

Urte gutxi daramatza sagardogileen munduan, baina jada esperientzia ugari du. Andoainen kokatuta dagoen Mizpiradi sagardotegiaren jabea da. Azken urteetan, jantokia astebururo betetzen zuen, baina pandemiaren egoera dela medio, aldaketa ugari bizi izan ditu, baita une gogorrek ere.

Aurtengo egoera oso zailtzat du Arruabarrenak, pasa den urtea bezalaxe. Andoaindarraren ustetan, ziurgabetasuna da sagardotegiei kalte gehien eragiten diena; izan ere, lege edo arau bakoitzaren arabera moldatu behar dira: “Espero dugu, etorkizunari begira egoera hobetzea eta berriro ere, neurri batean, normaltasunez lanean hastea”.

Esanak esan, asko dira sagardotegia irekiko ez dutenak dirua galtzearen beldur. Bestalde, Arruabarrenak irekitzearen aldeko apustua egingo du, “Andoainen bi sagardotegi soilik egonda, lan apur bat egiteko

aukera egongo dela uste dugu”. Hala ere, itxiera perimetralak sagardotegietan kalte izugarriak eragin dituela nabarmendu du. Hala eta guztiz ere, gehitu du arau guztietara moldatuko direla eta orain arte bezalaxe lanean jarraituko dutela: “Segurtasun eta higie-ne neurriak bete ditugu, eta betetzen jarraituko dugu”.

Bestalde, askok galdetzen dute egoera honetan soberako sagardoarekin zer egiten den. Mizpiradiren kasuan, andoaindarrak azaldu duenez, pasa den urtean ez zen sagardo soberakinik sortu. Eta gehitu du aurtengoan ezer gelditzen bada ozpinetarako erabiliko dutela.

Patxi iribar, Oianume sagardotegia

Oso bestelako itxura izango du Oianume sagardotegiak urnietarrentzat, baita bertako jabe den Patxi Iribarrentzat ere: bezero guztiek eserita egon beharko dute, eta mahaiak lau kidez osatutakoak beharko dute izan. Beraz, txotxetik edaterik ez da egongo; sagardoa eserita eta pitxerrean edo botilan dastatzeko aukera izango dute.

Horrek eragin zuzena du jardunean, eta Iribarrek ez du etor-

kizun oparoa aurreikusten: “Zaila da egoera, zeren ez baitakigu irekitzeko aukerarik izango dugun, ez eta irekita egonda ere zenbat iraungo dugun”. Aurtengo denboraldia iragan urtekoa baina zailagoa begitantzen zaio: “Sikiera, joan den urtean, martxora bitarte salbatu genuen. Aurtengoari dagokionez, ezta hori ere”.

Oraindik sagardotegia irekitzeko asmo garbirik izan gabe, jatetxeari eutsiko dio Oianumek, eta bertan ere sagardotegiko menua eskuratzeko aukera izango du nahi duenak. Hala ere, egoera makala denaren iritzi da sagardogilea: “Jendea ez da animatzen; lau-ko multzoak izanda, are gutxiago. Ez da erraza...”.

Txotx denboraldia zaila izango zela aurreikusita, sagardo gutxiago ekoiztu dute Oianumen, ondoren, ozpinetarako erabiltzen den sagardoa murriztagoa izateko. Hori ez ezik, beren jarduna ere asko baldintzatu dute neurriek, Iribarrek adierazi duenez: “Egun, kasik ez dago gaurik, etxeratze-agindua dela medio. Ondorioz, astebukaera gelditzen zaigu, hots, larunbat zein igande eguerdia”.

Xabi Ansa, Setien sagardotegia

Familiako sagardotegian, Setien, harrapatu zuen Xabi Ansa urnietarra koronabirusa Euro-para iritsi zenaren albisteak, eta astebeteren buruan iritsi zen itxialdia Euskal Herrira. “Martxoan izan zen”, oroitu du Ansak, “eta guretzat hilabete hori da aberatsena, denboraldi altuena; hala, galera handia izan genuen”. Otsailan jende gutxiago bertaratu arren, martxotik hasi eta Aste Santuraino jendez lepo egoten da Setien “Moko” sagardotegia.

Horiek horrela, aurtengo denboraldirako jada jarduna berrantolatuta zuten sagardotegian. Lehen, bost kideko taldea osatzen zuten: langile bana txotxean eta zerbitzatzen, bi sukaldean eta beste bat parrillan. Egun, kupeletik edatea posible ez denez, hirura murriztu dute taldea. Horrez gain, mahaiak lekualdatu dituzte, aforoa medio, eta ordutegia ere moldatu dute. Ansak azaldu duenez, ostegunetik igandera bitartean eguerdiz irekitzea zen aurtengo asmoa.

Sagardotegiek ezer berezirik badute, sortzen den giroa da hori. “Ondo jateko asmoa izateaz gain, esperientzia bizitzeko gogoiz da-

tor jendea sagardotegira”, adierazi du Ansak. Alabaina, gehitu du neurri murriztzaileek giroa apalduko dutela: “Xarma galdu egingo da, eta jatetxe batetara joatearen pareko izango da aurtengo sagardotegia”. Trixixaren zein panderoaren soinuarekin girotu ohi ziren asteburuak Setien: “Gastronomia eta kultura nahasten dira sagardotegian, eta oso polita da hori”, dio Ansak.

Lehen, oro har, asteburua zen sagardogileentzat asteko mementorik aberatsena. Halaber, egun, jendeak nahiago izaten du larunbat eguerdian egin. “Guk gertukoekin egiten dugu lan”, dio gazteak, “izan ere, asteburuetan jende ezaguna eta gertukoa etortzea dugu nahiago, betikoentzat tokia izatea, alegia”.

Horrenbestez, aurtengo ere ez da kupeletik sagardo askorik aterako, eta, urnietarrak adierazi bezala, soberan dagoena ozpina egiteko erabiliko dute, gehienek legez. Horrez gain, Ansak dio sagardo ekoizpen gehiena botiletan joaten dela: “Txotx denboraldian gurean pare bat kupel hustutzen dira gutxi gorabehera, eta nolanahi ere, nire osabak dioen lez: garai batean jendeak gehiago edaten zuen”.

EULA
TOLARE SAGARDOTEGIA
URNIETA 943 552 744 - 647 437 703

www.eulasagardotegia.com

LARRE-GAIN
TOLARE SAGARDOTEGIA

Ereñozu auzoa, z/g
HERNANI
943 55 58 46
616 287 867
larre-gain@larre-gain.com

GAZTANAGA
SAGARDOTEGIA

Irurain etxea
Buruntza auzoa
ANDOAIN
943 59 19 68
www.sidreriagaztanaga.com

Andoni Urbistondo URNIETA

Xabier Arrutik arduratuta begiratzeko die pandemiako hirugarren olatuak ekarriko dituen arazoei (Beizama, 52 urte). Gipuzkoako Foru Aldundia jarraipen zehatza egiten ari da sagardo ekoizleek dituzten gabezien inguruan, eta ahal duen laguntza handiena ematen, "hori agian nahikoa ez dela izango jakitun". Txotx garaian ohiko moduan gozatzeko komeriak izango direnez, sagardoa kontsumitzen jarraitzeko deia egiten du, modu batean edo bestean izan, "horrela ekoizleak berak lagunduko baititugu".

Pandemiak bizi-bizi kolpatu du 2021eko txotx garaia. Iaz denboraldi erdia edo libratu zen, aurtengo hori ere ez. Zer panorama ikusten duzue Aldunditik?

Panorama beltza, zoritxarrez. Txertoaren hedatzeak kutsatzeak gutxi ote dituen esperantzak baditugu, bagenituen, baina dena atzeratzen ari da, eta aurtengo denboraldia nahiko beltz ikusten dugu. Eskertu, estimatu eta aitortzekoa da sagardo elkarteak eta sektoreko beste aktoreak txotx denboraldia sagardo denboraldi bihurtzeko egiten ari diren ahalegina, beste formatu batzuk lantzeko, baina ez da erraza, sagardotegietako txotx garaia oso errotuta dagoen tradizioa baita, gurean.

Zer suposa dezake sektorearentzat txotx garaia bertan behera geratzea?

Berez, negozioaren osotasunean, txotx garaia %5a suposatzen du, zenbaki soilak aztertuz. Baina txotx garaia portzentaje hori baino askoz gehiago da. Txotx garaia da autobusak, tabernak, kontsumoa... Hortxe dago erronka, panorama beltz hori murriztea.

Ekoizleek zer egin, nola jokatu jakiteko ere komeriak... Zer egin, baina?

Erantzun zehatza edukiko banu, emango nizuke. Sagardoa kontsumitzeko hiru bide daude: txotx garaia, taberna edo elkarrekin gastronomikoetan, eta norberak bere etxean. Lehen biak erabat murriztuak ditugu une hauetan, eta etxean kontsumitu beste aukerarik ez dago. Sagardoak eta txotxak zerbait badute, lagunarteko giro hori da, eta hori gabe... Supermerkatu eta dendetako salmentak handitu egin dira, egia da, baina hazkuntza horrek ez du inola ere txotx garaia hutsuneak ekarriko duen zuloa konpentsatuko.

“Jendarteak txertoak adina behar ditu sagardoaren balioak: lagunartea, ilusioa, ondo pasatzeko gogoa...”

XABIER ARRUTI GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO NEKAZARITZA SAILEKO ZUZENDARIA
Sagardo ekoizleen erradiografia zehatza egin du Arrutik, eta euren esku dagoen gutzia egingo dutela ziurtatu, sektoreak iraun dezan



Xabier Arruti Nekazaritza saileko zuzendaria da. GIPUZKOA

Txakolinarekin bestela gertatzen zaigu, gehiago esportatzen da, baina sagardoak oso kontsumo lokala dauka. Negozioa dibertsifikatzea aukera bat izango litzateke, baina hori lortzea ere erraza ez. Oso sagardo gutxi kontsumitzen da Euskal Herriatik kanpo.

Orain bi aste jakinarazi zituzten elkarte eta erakundeek segurtasun protokoloak, nola izango zen denboraldia, zer neurriekin eta beste, baina orain dena pikutara joan da...

Bai. Eta ezin jakin egoerak noiz hartuko duen buelta. Ez etsitzeko animoa ikusten dut elkartetan, indartsu sumatzen ditut eduki ditudan kontaktuak aintzat hartuz. Erakundeoi dagokigunez, ekoizpenari begiratzeko diogu batez ere, salmenta eta merkaturatzea Jaurralitzaren eskumena delako. Iazko salmenta beherakada konpentsatzen saiatu ginen, deialdi bat egin, sei edo zazpi azpi sektoreri zuzendua. Aurtengo denboraldia bukatu-

takoan analisisia egin beharko da, ea laguntza partida berri bat arautu behar den edo ez. Baiezkoan gaude, eta hala bada, partida hori egiteko gaitasunik ba ote dugun aztertu beharko da, ze horrelakoetan, kaltea jasan dutenei laguntzeko dirua beste nonbaitetik atera edo kendu behar izaten da, eta laguntza beharra sektore askora hedatu du pandemia gaizto honek.

Pandemia iritsi aurretik sagarrendoak landatzeko, 'Euskal Sagardoa' ekoizteko ekimena jarri zenuten abian.

Bai, Aldundiak eta Eusko Jaurralitzak elkarlanean. Euskal Jatorri Izendapenaren aldeko apustua egin zen, bertako sagarrenekin ekoiztutako sagardoa. Bertako sagarra erabiltzeko babesa betidanik egon da, 60.000 euro artekoa hasieran, baina gero 300.000 eurora bitarte handitu genuen laguntza partida hori. Baldintza bakarra zen laguntza horiek jasotzen zituenak euskal jatorri izendapeneko sagardoa ekoiztea. Azken urteetan gorantz ari da bertako sagarrekin ekoiztutako sagardo kopurua, eta gure helburua

"EZIN JAKIN EGOERAK NOIZ HARTUKO DUEN BUELTA. EZ ETSITZEKO ANIMOA IKUSTEN DUT EKOIZLEEN ARTEAN"

"AURTEN ERE KRISI HAU KONPONTZEKO PLANGINTZA BAT EGITEN SAIATUKO GARA"

Gipuzkoan ekoizten den sagardo guztia bertako sagarrondoek emandako sagarrekin lortzea litzateke. Ez da erraza, sagarrondoek hiruzpalau urte behar baitituzte fruitua ematen has-teko, eta legegintzaldi honetan zaila izango da helburu horretara iristea. Diru-laguntzak badaude, lurra ere behar da sagarrondoak landatzeko. Gipuzkoako kasuan 750 bat hektarea, hain zuzen ere.

Ekoizleen larruan jarriko bazina, zer esango zenieke?

Ez daukadala errezeta magikorik egoera hau konpontzeko, gauzak garbi. Guk egin dezakeguna zera da, elkarteekin hitzarmenak adostu, diru-laguntzak handitu. Aurten ere krisi hau konpontzeko plangintza bat egiten saiatuko gara, ahal badugu. Eusko Jaurlaritzak merkaturatzean eragin nahi du, baina dena itxita baldin badago ez da erraza.

Galeren inguruko kalkulurik egitea posible al da? Egin zen iaz?

Ez. Balantzea oraintsu egiten hasiko gara, iazkoa. Pasa den denboraldiko diru-laguntzen ordainketak ere Gabonetan, urtarrila hasieran egin dira. Orain balantzea egin beharko dugu, eta balantze horren baitan, aurtengo zenbakiei begira halako aurreikuspen bat osatu.

Ekoizle askok eskatu al zuten laguntza, pasa den denboraldian?

51 ekoizlek, eta 230.000 euro banatu ziren guztira, 4.500 bat euro bakoitzarentzat, batez beste. Batzuk gehiago jasoko zuten, beste batzuk gutxiago... Eskatu zuten guztiei eman zaie laguntza. Ez ditu arazo guztiak konpontuko, noski, baina keinu bat bada, behintzat. Gehitu horri sagarrondoak landatzeko deialdia, 300.000 euro urteko. 2020an 17 ekoizleek eman zuten izena,



Xabier Arruti, 2020ko abenduan, Etxekoak kanpaina aurkeztu zutenean. Aurkezpen ekitaldian izan ziren, besteak beste, Mikel Pagola Partaidetzarako zuzendaria eta Maite Otaño nekazal ekoizlea. Biak ala biak, urnietarrak. GIPUZKOA

eta eskari guztiei erantzuteko 368.000 euroraino igo genuen partida. Milioi erdi pasa bideratu zen pasa den denboraldian, eta horri esker hainbaten arazoak samurtu badira, gu pozik.

Bidean, norbait krisiari buelta eman ezinik geratzeko arriskuan sumatu duzue?

Ezetz esango nuke, edo horren esperantza daukat, behintzat. Uda aldera egoera konpondu eta ondoren bide bazterrean inor ez geratzeko ahaleginak egingo ditugu.

"IAZ DIRU-LAGUNTZA ESKATU ZUTEN EKOIZLE GUZTIEI EMAN ZAIE. 51 DIRA, DENERA"

Ez ote zaigu ahaztuko, bezeroei, sagardotegietarako bidea, ohitura?

Ezetz espero dut. Eskualde batzuetan oso errotuta dago sagardotegietako tradizioa, Urnieta-Hernani-Astigarraga aldean ondo dakizue hori. Egoera larri honek sagardoa sustatu edo kontsumitzeko beste bide batzuk jorratzea ekarri beharko luke. Esan nahi dut, garagardoa zerbitzatzen den bezala zerbitzatzea sagardoa, sagardoaren bariantek sortu, gozoagoak... Beste formatu batzuk bilatu behar

"TXOTX-A EZIN DUGU EGIN, MOMENTUZ, BAINA SAGARDOA KONTSUMITU DEZAKEGU"

dira, bezero berriak erakartzen saiatu, bidean itotzen ez bagara. Elkartek buru-belarri ari dira beste formatu batzuk bilatzen, baina txotx garaia oso errotua dago.

Jendea txarrotik edatera ohitu zen iaz, eta txotx garaitik kanpo sagardotegira joaten ere bai. Joera soil, edo tradizio aldaketa?

Sagardotekak ere sortzen ari dira pixkanaka. Akaso arrotzak egiten zaizkigu hasieran, baina txotx-a ezagutu ez duten belau-naldi gazteak igual murgilduko

"SAGARDOA KONTSUMITUZ SEKTOREA ERE LAGUNDUKO DUGU, EDAN LASAI"

dira kontsumo bide berrietan. Aditu bati entzun nion, sor markaren bilakaera naturala zela. Aurrena etiketa generikoa sortzea, Arabar Errioxako ardoa, adibidez. Urteak aurrera egin ahala, ordea, Arabar Errioxako ardo jakin bat eskatzen duzu. Ba bide hori sagardo munduan oraindik egiteko dagoela esango nuke. Sagardoa eskatu beharrean, ba ekoizle jakin baten sagardoa eskatu. Tabernetan, elkarrekin, marka bat edo beste eskaintzen dute, eta zuk aukeratu. Etxean kontsumitzen duenak ere berak aukeratzen du sagardo marka. Etxeko hau hori etxetik kanpora hedatzea lagungarria litzateke.

Berriro txotx garaia bueltatzen denerako, bueltatzen bada. Segur-tasun protokoloen berri eman zuen elkartek, hor zer esan gutxi, ezta?

Ezer ez. Hor segurtasun dekretuak daude, eta txarrotik edatea, edo bakoitzak bere plateretik jan behar duela erabaki bada, araua bete, ezin dugu bestelakorik aholkatu. Denok harropatu gaitu pandemia honek ezustean, esaten digutena bete behar dugu.

Ze eskatuko zenioke 2021erako, eskatzeko aukera izango bazenu?

Sagardoa ez da gaitza erradikatu duen txertoa, baina bai bizi poza emango digun osagaia. Sagardoa txispa, txinparta da, ilusioa, lagunartea, ondo pasatzeko gogo. Jendarteak txertoa adina edo gehiago behar ditu balio horiek, eta behar dituela zabaldu behar da ahalik eta gehien. Txotx-a ezin dugu egin, momentuz, ados, baina sagardoa kontsumitu dezakegu, beraz ireki sagardo botila lasai! Sagardoa kontsumituz sektorea ere lagunduko dugu. Beraz, edan lasai!

RZABALA
Goiburu auzoa 5
ADUNA
943 69 07 74
info@rzabala.com

MIZPIRADI
TOLARE SAGARDOTEGIA
Mizpiradi baserria
Leizotz auzoa - ANDOAIN
943 593 954

SETIEN SAGARDOTEGIA
Oztaran auzoa,
URNIETA.
943 55 10 14

Ekoizleentzat erreskate plana

Gipuzkoako Foru Aldundiak zuzeneko laguntzak bideratu ditu lehen sektoreko eragile ezberdinei

Erredakzioa ANDOAIN

Erreskate plana, adiera hori erabili du Gipuzkoako Foru Aldundiak. 2020ko krisiak eragin-dako kalteak arintzeko, 893.074 euroko zuzeneko laguntzak bideratu dizkie artzaintza, sagardoa, txakolina, nekazalturismoak edota lore-mozketa azpisektoreei.

Xedea ezaguna da, "pandemiaren ondorioz izan duten diru-sarrera falta arintzea, jarduera ekonomikoari, enpleguari eta landa-ingurunearen dinamismoari eutsita". Artzainak eta sagardogileak izan dira laguntza handienaren onuradunak. Ardi eta ahuntz haziendetako 141 ekimen diruz lagundu dituzte, eta 52 sagardo ekoizle.

Krisiaren eragina bereziki handia izan da sagardotegietan. Sagardogileek zuzenean jasan baitute alarma-egoerak eta ondorengo murrizketek eragindako eskari-krisiaren eragina.

COVID-19ak bigarren urtez gogor kolpatuko duen sektorea

izanik, Jabier Larrañaga Sustapen Ekonomiko, Turismo eta Landa Inguruneen diputatuak laguntza eskaintzen jarraituko dutela iragarri du: "Badakigu une zail hauetan laguntzak beharrezkoak direla eta, horregatik, 2021ean ildo beretik jarraituko dugu. Aldundiak jarraipen berezia egingo die pandemiak eragindako ondorio negatiboek, berehala jardun ahal izateko eta lehen sektore indartsu eta dinamiko baten etorkizuna bermatuko duten laguntza-plan eraginkorrak eskaintzeko. Izan ere, krisi honek agerian utzi du jarduera horien garrantzia ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa".

ALARMA EGOERAK ETA MURRIZKETEK ERAGINDAKO ESKARI-KRISIA HANDIA IZAN DA SEKTOREAN



Sagardo sektoreak elkarrekin egindako bidea eta lana izan zen urtarilaren 19an Donostiako Kursaallean aurkeztu zutena. AIURRI

Kupeleko sagardoa pitxer eta botila gardenetan

Sagardotegi garaiak duen adierazgarri nagusia sagardo berria dastatzea da, otordu eder baten bueltan. Eta hori nola egin? Mahaian eserita. Sagardogileek mahaira ekarriko dute sagardo berria, pitxer edo botila gardenetan

Erredakzioa ANDOAIN

Sagardo berriaren aurkezpenean sektore osoa batera dagoela agertu nahi izan zuten. Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako ordezkariak ez ezik, Euskadi osoko Sagardogileen elkarteko ordezkariak hurbildu ziren. Pandemia betean dira, bigarren urtez jarraian. Baina ez daude etsitzeko prest: "Ez ohiko egoera bati aurre egiteko erronka eta konpromisoa hartu du sektoreak, lanerako protokolo zehatza garatu eta sagardo berria eta sagardotegiko esperientzia bezeroei modu erakargarri batean dastatzera emateko".

Sagardotegi garaiak duen adierazgarri nagusia sagardo berria dastatzea da, otordu eder baten bueltan. Eta hori nola egin? Mahaian eserita. Sagardogileek mahaira ekarriko dute sagardo berria, pitxer edo botila gardenetan. Iraganeko ohitura berreskuratzeko aukera baliatu dute, horrela, egoera epidemiologikoak baldintzatuta: "Uzta berria mahaian kontsumitzea berri-tzailea da, baina aldi berean, antzinako kontsumitzeko modua berreskuratzeko pausoa. Historian zehar, pitxarretan zerbitzatu izan da sagardoa gure sagardotegietan. Aurtengoan,

egokitu eta findu nahi izan dugu teknika hori, bezeroari ahal bezain arreta onena emateko asmotan, produktua, informazioa eta irudia zainduta. Horregatik, pitxarra edo botila gardenari, sagardoaren informazioa ere jarriko zaio, kontsumitzaileak zein kupeletako eta zein sagardo mota dastatzen duen jakiteko".

HISTORIAN, PITXARRETAN ZERBITZATU IZAN DA SAGARDOA GURE SAGARDOTEGIETAN

Izaera eta gorputz ederrekia

Eta nolakoa da aurtengo sagardoa? Hauxe da aurkezpen ekitaldian adierazi zutena: "2020a sagar urte txikia izan da Euskal Herrian kopuruz, eta izaera handikoa edukiz. Sagardoek ere hori erakusten dute, izaera eta gorputza. Uzta oso berezia eta ona dastatu ahal izango du kontsumitzaileak Sagardotegi denboraldian, konplexutasun handiko sagardoa, bilakaera ahalmen handikoa. Euskal Sagardoa Jatorri Deiturapean 1.200.000 litro sagardo egin dira 2020 uztan, eta horretarako 2 milioi pasa kilo sagar erabili dira.

Euskal Sagardoak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 48 sagardotegi biltzen ditu gaur egun eta 248 sagargileren sagarra erabiltzen da".



**Komunitatea atalean,
ikus-entzunezkoak:
#Kultura
#Tradizioa**



Urtarrilak 30: Puska-biltzea



Otsailak 4: Santa Eskea



IRITZIA

JON ZULUETA ANDOAIN

Ruben eta Jon



Larunbatean Andoainen Ruben Gelbentzurekin eta Jon Lizarribarrekin elkartasunez egin zen elkarretaratzearen bezperan, eta Twitterrek eskaintzen dituen 240 karaktere eskasetan, kasu honen atzean dagoen poliziaren obsesioa laburbiltzen saiatu nintzen. Ez da erraza gutxienez 17 urte irautean duen gehiegikeria hori horrela laburbiltzea. Aiurrik, dezenteko eskuzabalagoa, tarte luzeagoa ematen du zorionez.

Ruben eta Jon, Jon eta Ruben, aski ezagunak dira bai Andoainen, bai Urnietan. Ez da beharrezkoa beren militantzia politikoaren berri ematea. Gaztetatik militantzia politiko jakin bati lotutako pertsona askok bezala, poliziaren errepresioaren biktima izan dira, espetxearekin ordaindu behar izan dutena. Nola ez.

Egoera honek susmagarri kronikoak bilakatu ditu. 2003. urtean akusazio berri batekin atxilotu zituen Espainiako polizia nazionalak. Jon eta Ruben, ezizen zehatz bat zuten bi ETako kide zirela zioten. Ez zuen ibilbide luzerik egin akusazio horrek eta komisaldegiko 3-4 egunak igaro eta gero, epaileak libre utzi zituen. Ez ziren epaituak izatera ere iritsi.

Bazirudien gai hori behin betiko itxita geratu zela. Gehiago, ETak bere jarduna behin betiko amaitutzat eman ostean Euskal Herrian bestelako giro politiko bat irekiko zela pentsatzen genuelako gehienok. Eta gutxien espero zenean, 2013.

urtean, Guardia Zibilak berriro atxilotu zituen. Atxiloketa oso modu bortitzean gauzatu zuten gainera. Kasu honetan, akusazioan zehaztapen gehiago zekartzaten, ekintza zehatzak leporatzen, baitzizkieten. Baina, oinarrian, 2003. urteko akusazio bera zen. ETako kide zehatz horiek izatea, eta ezizen horien babesean ekintza zehatz batzuk egin izana.

Itxura txarra hartu genion. Urtebeteko espetxealdia egin behar izan zuten, Euskal Herritik urrun... Andaluzian. Berriz ere, frogak nahikorik ez eta kalean utzi zituzten. Ausia artxibatu zuen epaileak.

Eta jakina, iritsi da hirugarren saialdia. Soilik poliziaren obsesioaren logikatik ulertu daitekeen saialdia. 17 urte beranduago. Oraingoan ekintza ezberdinak oinarri hartuta, baina berriz ere 2003. urteko ezizen berberak erabiliak. Zur eta lur.

Luze eztabaidatu daiteke une politiko honetan horrelako gertaeren onuradunak nortzuk diren, nork sustatzen dituen eta zein helbururekin egiten diren. Bada inork ukatu beharko ez lukeen erpina: Bi herritar ditugula erdigunean. Bi herritar ingurune sozial zabal batekin. Inolako oinarri juridikorik gabe, eta izan daiteke egoera politiko bat baldintzatzearen helburuarekin, edo sektore baten obsesio politiko eta pertsonalak asetzeko helburuarekin egiten dela, baina Rubenen eta Jonen bizitzak ditugu jokoan. Eta bidegabekia da, guztiz.



POSTONTZIA

IPAR HAIZEA PLATAFORMA ANDOAIN

Andoaingo hondakinen datuen bilakaera

2020a pasata, hondakinen bilketa 2019 urtekoarekin alderatuko dugu. Hasteko, hondakinen sorrera 200.000 kg pasatxoan hazi da; 4,5 milioi kg inguruan kokatuz (2019an ia 4,3 milioi kg izan ziren). Bizi izan genuen etxeko konfinamenduaren ondorioz hazi dela, batez ere, ondorioztatzen dugu.

Organikoa hazi den frakzio nagusia da, 86.000 kg gehiago jaso baitzen 2020an, 2019arekin alderatuta (zehazki 37.000 kg gehiago merkatarien atez ateko bilketan -ia 250.000 kg gehiago-, eta 49.000 kg inguru gehiago kaleko edukiontzi marroien).

Ontzi arinen bilketa (edukiontzi horia) ere asko hazi zen 2020an, 66.000 kg gehiago gehituz 2019arekiko. 600.000 kg-ra gerturatu zen. Papera-kartoiaren bilketak (edukiontzi urdina) ere, bilketa kontsolidatua izanagatik ere, hazkundera izan

zuen (22.000 kg gehiago), batez ere kartoi komertzialak (14.300 kg gehiago), 600.000 kg gaindituz edukiontzi urdinaren eta kartoi komertzialaren artean. Beiraren bilketa, aldiz, jaitsi egin zen 31.500 kg gutxiago bilduz. Batez ere, ostalaritzak jasan dituen itxieren eraginagatik dela pentsatzen dugu. Halaber, hazkunde txikia izan da sukaldeko olioaren bilketan (252 kg gehiago), baina arropa bilketan jaitsiera nabarmena eman da, 14.500 kg gutxiago jasota aurreko urtearekin alderatuta.

Gaikako bilketari helduz, bilketa sistema berria 2019ko otsailaren erdialderako martxan jarri zela kontuan hartuta, eta baita COVID-19ren pandemia kontuan hartuta, hazkunde txikitxo bat egon da 2019tik 2020ra (%0,03), %64,09an kokatuz. Urteko azken hilabeteetan, ordea,

gaikako bilketak beherakada nabarmena jasan du; %60-62an kokatu da, batzbestekoa lehen %66an kokatu izan denean). Kezkaz ikusten dugu hori. Pandemiak ez du gehiegi lagundu, baina errefusaren irekia mugagabeak kalte handia egin duela pentsatzen dugu.

Hau guztia zuzendu asmoz, azken hilabeteetan "Andoaingo Ituna" lantzen eta aurkeztzen egon gatzake udaleko alderdi politiko ezberdinei, adostasun amankomunetik abiatuta datuak hobetu ditzakegula sinisten dugulako. Horren emaitza da udaleko alderdi politiko guztiek (EH Bildu, PSE-EE, EAJ-PNV eta Elkarrekin Podemos) sinatzeko hautua egin dutela. Sinadura ekitaldia herriko egoera epidemiologikoa hobetzekin burutuko da.

Askok poztu gaitu horrek. Bide honek bere fruituak emango dituelakoan gaude.

Andoain: Etxebizitzetako eta merkatalguneetako hondakinen sorreraren bilakaera (2015-2020)

Materia	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Errefusa	3.394.180	3.175.680	2.671.840	2.541.290	1.540.550	1.611.475
Organikoa	0	138.375	578.990	651.505	1.111.122	1.197.219
Ontzi arinak	442.140	306.509	355.357	366.363	514.744	581.320
Papera	588.034	431.829	427.623	424.148	485.035	493.228
Kartoa	85.220	87.751	109.601	114.295	101.200	115.530
Beira	400.840	396.799	405.507	431.641	444.618	413.159
Arropa	65.123	56.186	75.591	59.712	80.326	65.915
Landare olio	13.010	14.024	8.810	9.267	9.397	9.649

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Egoitza Orokorra: Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda. Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo. Maketatzalea: Maddi Trutxuelo. Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan). Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea. Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537. Lege Gordailua: SS-1078/04. ISSN: 1698-4870. Tirada: 4.000 ale. Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: ERROITZ

ALIATUAK: AIATUA, TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITATZEN DA: ANDOAINGO UDALA, Urnietako udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA: Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIURTAGIA: BIKAM

BABESLEAK: AIURRIKO harpidedunak ezinbestekoak dira.



Silvia Molano Andoaingo Pottoko dendako nagusia. AIURRI

"Erakusleiho bihurtu gara"

SILVIA MOLANO ANDOAINGO POTTOKO DENDAKO NAGUSIA

Negozioak hamabost urte bete dituenean, geldialdi handi samarra bizitzen ari da. Itxiera perimetralak zuzenean eragiten dio, bezero guztien %80a kanpokoa baita

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Denda zabalik duzu, baina kanpoko bezeroa hurbiltzea ezinezko bilakatu da. Zure bezeroaren gehien-goia kanpokoa baita.

Halaxe da. Izan ere Pottoko puerikultura denda bat da, eta Gipuzkoan lau denda daude. Gipuzkoa osoa mugitzen da denda hauetara. Nire bezero guztien %80a edo gehiago Andoain kanpokoa da. Udalerria itxita, etxez etxeko salmenta egitea beste aukerarik ez daukat. Eta halaxe nabil. Eguerdian denda itxi eta eguerdiro batetik bestera nabil.

Denda zabalik daukat, ohiko ordutegian, eta egun osoan ia hutsik dago. Pertsona bakan batzuk sartzen dira. Egun osoan bat edo bi hurbiltzen zaizkit, eta gainerako orduetan ibilgailua hartu eta etxez etxe joan behar izaten dut.

Arazo bat da erosi aurretik erakusleihoan edo denda barruan ikusi duena probatzeko edo aztertzeo aukerarik ez duelako.

Halaxe da. Merkatarion arazorik handiena, lehenagotik datorrena, internet da. Erakusleiho bihurtu gara, geroz eta gehiago. Batek baino gehiagok haurraren aulkia ikusi, aukeratu eta probatu egiten du hemen baina erosketa internet bidez egiten du.

Hainbat Sektoretan gertatzen ari da, eta epe luzera denda fisikoa desagertuz joango da. Pandemiarekin prozesu hori

"INTERNET BIDEZ ENPRESA BAKARRA ABERATS BIHURTZEN ARI DA. MONOPOLIO HUTSA DA"

azkartzen ari da. Nire iritzia da, baina jendeak ez du internet bidez beharraren arabera erosten. Jendeak zuzenean Amazonen erosten du, eta enpresa bakarra aberats bihurtzen ari gara. Monopolio hutsa da. Zer gertatuko da zure alabak edo gure ilobek ikasi nahi ez eta lan egiteko erabakia hartzen badute? Nora joango dira lan eske, Amazonera? Ez da dendarik egongo udalerrietan, ez da deus geratuko.

Merkeagoa dela? Alderatu egin beharko genuke produktu berdina. Ez nago ados. Produktu batzuetan egongo da aldea, baina diferentzia handiena dago Amazonek ez duela autonomoen kuota ordaintzen, dirutza paradisu fiskaletan gordeta daukate... Ondorioz, irabazien zatirik ez da zergen bitartez estatura itzultzen. Eta ez ditugu errepideak behar bezala konponduta. Guztioi era-

giten digun joera da, eta pandemiak egoera okertu besterik ez du egin. Herritarrek ezin du udalerritik atera, eta bezeroari ezinezkoa zaio gugana hurbiltzea. Gure lana whatsapp eta bideo-deien bitartez gauzatzen da, garai hauetan. Eskaera egin eta bezeroari etxeraino zerbitzua eskaintzen diogu. Bada zerbait, baina oso zail daukagu.

Garai honetan zer da gehien saltzen duzuen?

Sasoi honetan sehaskak, haur-kotxea..., udaberrian eta udan izaten baita jaiotzen kopuru handiena. Une honetan nire egunerokoa haur-kotxeak erakustea litzateke.

Denbora eskaini behar diozu.

Bikote batekin ordu eta erdi egon ninteke, azalpenak eta irakaspenak ematen. Sasoi honetan bi-hiru astez behin haur-kotxe bakarra erakusten ari naiz.

Gabonetako kanpaina oso bestelakoa izango zen zuretzat, orduan?

Ezusteko atsegina jaso nuen. Normalean ez da niretzat salmenta handiko garaia niretzat, puerikulturaren etenaldia izaten delako. Arropa eta jostailuak saltzen dira, ez besterik. Baina Gabon hauetan herriak erantzun egin duela ikusi dut, eta tokiko merkataritzari gehiago erreparatu diola esango nuke. Jostailuen salmantan igoera izan dut. Herriari esker izan da, eta Sal-kineko bonuak eta Eusko Jaur-laritzakoak ere lagungarriak izan dira.

Konfinamendu perimetrala ezarrita, zure kasuan denda ixtea da aukerarik egokiena?

Nire kasuan, bai. Nire salmentan-esparrua oso zehatza da: Haurdun dauden emakumeak eta gehienez ere 3-4 urte bitarteko haurrak. Bezero berrieekin egon behar dut, etengabe. Hobeto datorkit denda ixtea, egia esan. Zabalik egotea alperrik galdutako orduak eta orduak dira, 200 metro karratuko gunen bat zabaltzeak eragiten dituen gastu guztiekin. Hobeto nengoke etxean, bideo-deiak egiten eta etxez etxeko salmenta egiten. Baina ezin digute negozioa itxi, denontzat dirurik ez dagoelako.

"MARTXA HONETAN EZ DA DENDARIK EGONGO UDALERRIETAN, EZ DA DEUS IZANGO"

Jasotako laguntzak nahikoak izaten ari dira?

Ez, ez dira nahikoak. Baina ez naiz horri buruz hitz egiteko egokiena. Udalaren laguntzak oso ondo etorri zaizkigu eta Espainiako Estatuak emango dituenak jasotzea oso gutxiren esku egongo da. Oro har, ulertzen dut nik baino premia handiagoa izango duten beste sektore gehiago daudela. Ez dut niretzat eskatzen, neronek aurrera ateratzeko adina lan egiten dudalako. Baina egon badaude askoz egoera okerragoan dauden sektoreak, bidaia-agentziak esaterako.

Udaberria gainean dugu, zer nola-ko aurreikuspena egiten duzu?

Egoera beretsuan egongo naizela uste dut. Erakusleihoa aldatzeko inbertsio handi samarra egin dut. Berritzen ez den negozioa hil egiten dela sinestuta nago, eta beraz etengabe erakusleihoa aldatzen ari naiz. Denboraldi berriaren zain nago, ea Outlet-a ondo ateratzen den eta ondoren udari begira jarri. Positibo agertu nahi dut.

Kezkatuta, haserre... Nola sentitzen zara?

Agobiatuta, lehenik eta behin. Atetik jenderik sartzen ez dela ikusteak nekatu egiten du. Etor-kizuna da bezeroak sartzen ikustea. Eta ez badira sartzen gastuei berdin-berdin aurre egin behar diet. Eta, lehen esan bezala, ez dut kezatzeko motiborik etxez etxeko salmenta egiten jarraitzen dudalako. Ez dut zorrik inorekin. Baina egoera nekagarria da.

Ezjakintasun handiko egoera bizi dugu, gainera.


Hau ez da amaituko. Hamabost egunez etxean sartu beharko gintuzkete, denok. Ez baitiot itxura onik hartzen. 2021a beltz samarra izango da, itxura guztien arabera. Bakoitzak nahi duena egiten du, formalak bagina sikiera!

Zein da merkataritzaz egiten duzun analisia?

Gure sektorean, estatu mailan, egoera beretsua da eta joera berdin-berdina da kasu guztietan: Jaitsiera ikusgarria da, maila guztietan. Andoain mailan, merkagune batzuri ondo etorri zaie itxiera perimetrala. Baina oso gutxiren kasua da. Gainerakoak, elikagaiekin zerikusirik ez dutenak bereziki, antzeko gaude. Itxiera perimetralak guztioi egiten digu kalte. Denok ditugulako inguruko herrietatik datozkigun bezeroak.

2021eko urtarrila | Eremu gorrian sartu ginenekoa

Urtarrila	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	
ANDOAIN	1	3	4	16	7	9	7	18	9	3	8	10	9	8	17	8	10	2	7	12	10	7	10	9	10	14	7	5	7	3	1	251
URNIETA	1	0	0	0	4	0	0	0	0	1	2	2	1	2	4	3	4	4	6	2	4	2	2	7	6	6	2	3	3	0	1	72



IREKIA

Kontrol egutegia aurkeztu dute

Arreta galtzean, abiadura desegokian eta droga nahiz alkoholaren kontsumoan arreta jarriko dute

Erredakzioa ANDOAIN

2021eko Trafikoko zaintza eta kontrolen egutegian honako hauek kontrolatzeko kanpainak egitea aurreikusi du Eusko Jaurlaritzak: arreta galtzeak, abiadura, alkoholaren eta drogen kontsumoa, hiri-bideetako harrapaketak, eskola-garraioa eta salgaien eta pertsonen garraioa, uhala eta haurrak eusteko sistemak, bigarren mailako errepideetako baldintza teknikoak, motozikletak, ziklomotorrak eta bizikletak. “Kolektiborik ahulenetan eta trafiko-istripuetan behin eta berri errepikatzen diren hiru faktoreetan jarriko du arreta: arreta galtzeetan, abiadura desegokian eta alkoholaren eta drogen kontsumoan. Euskadiko kale eta errepideetan istripuak eta arriskuak eragin ditzaketen portaerak murriztea da helburua”, azpimarratu zuen Sonia Diaz de Corcuera Trafikoko zuzendariak.

Intzidentzia tasaren karrusela

ANDOAIN

Urtarrilak 10:	607,15.	Urtarrilak 21:	874,03.	Urtarrilak 10:	128,85.	Urtarrilak 21:	563,70.
Urtarrilak 11:	647,18.	Urtarrilak 24:	847,34.	Urtarrilak 11:	144,95.	Urtarrilak 24:	724,75.
Urtarrilak 12:	660,53.	Urtarrilak 25:	860,69.	Urtarrilak 12:	177,16.	Urtarrilak 25:	789,18.
Urtarrilak 13:	707,23.	Urtarrilak 26:	887,38.	Urtarrilak 13:	193,27.	Urtarrilak 26:	853,60.
Urtarrilak 14:	747,26.	Urtarrilak 27:	874,03.	Urtarrilak 14:	209,37.	Urtarrilak 27:	869,71.
Urtarrilak 17:	927,41.	Urtarrilak 28:	854,02.	Urtarrilak 17:	370,43.	Urtarrilak 28:	885,81.
Urtarrilak 18:	834,00.	Urtarrilak 31:	693,89.	Urtarrilak 18:	434,85.	Urtarrilak 31:	773,07.
Urtarrilak 19:	834,00.	Otsailak 1:	693,89.	Urtarrilak 19:	467,06.	Otsailak 1:	789,18.
Urtarrilak 20:	854,02.	Otsailak 2:	680,54.	Urtarrilak 20:	499,28.	Otsailak 2:	837,49.

URNIETA

Urtarrilak 10:	128,85.	Urtarrilak 21:	563,70.
Urtarrilak 11:	144,95.	Urtarrilak 24:	724,75.
Urtarrilak 12:	177,16.	Urtarrilak 25:	789,18.
Urtarrilak 13:	193,27.	Urtarrilak 26:	853,60.
Urtarrilak 14:	209,37.	Urtarrilak 27:	869,71.
Urtarrilak 17:	370,43.	Urtarrilak 28:	885,81.
Urtarrilak 18:	434,85.	Urtarrilak 31:	773,07.
Urtarrilak 19:	467,06.	Otsailak 1:	789,18.
Urtarrilak 20:	499,28.	Otsailak 2:	837,49.

Pandemiaren garapena, astez asteko alderaketa eginez

ANDOAIN

- **Urtarrilak 27-Otsailak 2:** 30 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 680,54.
- **Urtarrilak 20-Urtarrilak 26:** 72 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 887,38.
- **Urtarrilak 13-Urtarrilak 19:** 61 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 834,00.
- **Urtarrilak 6-Urtarrilak 12:** 64 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 660,53.
- **Abenduak 30-Urtarrilak 5:** 35 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 413,66 (urt7).
- **Abenduak 23-29:** 18 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 267,65.
- **Abenduak 16-22:** 21 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 200,74.
- **Abenduak 9-15:** 9 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 80,29.
- **Abenduak 2-8:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 194,04.
- **Azaroak 25-abenduak 1:** 26 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 515,22.
- **Azaroak 18-24:** 51 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 796,25.

URNIETA

- **Urtarrilak 27-Otsailak 2:** 23 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 837,49.
- **Urtarrilak 20-Urtarrilak 26:** 29 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 853,60.
- **Urtarrilak 13-Urtarrilak 19:** 16 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 467,06.
- **Urtarrilak 6-Urtarrilak 12:** 5 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 177,16.
- **Abenduak 30-Urtarrilak 5:** 6 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 112,74 (urt7).
- **Abenduak 23-29:** 1 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 16,16.
- **Abenduak 16-22:** 0 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 113,09.
- **Abenduak 9-15:** 7 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 161,55.
- **Abenduak 2-8:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 113,09.
- **Azaroak 25-abenduak 1:** 4 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 274,64.
- **Azaroak 18-24:** 13 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 306,95.



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- **Osasun Sailak zabalduetako datuak eguerdiro, eskualdera ekarrita.**
- **Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.**
- **Atal bereziak: BIDEO-PILULAK | DATUAK EGUNEZ EGUN**

www.aiurri.eus



Urnieta
udala



Allurralde kiroldegia handitzeko egitasmoa aztertzeari ekin nahi diote. AIURRI

Izurritearen eraginari aurre egin nahi dion Udal aurrekontua

PSE-EE eta EAJ-PNV alderdiek sustengatzen duten Gobernu taldearen aurrekontu proposamena aurrera atera zen, duten gehiengo osoa baliatuta. Elkarrekin Podemos alderdiak ere aldeko botoa eman zuen, eta EH Bildu aurka agertu zen

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Urteko batzarraldia izan ohi da garrantzitsuena, udal-jarduera kudeatzeko ezinbesteko tresna baita. Duen garrantziagatik eztabaidatsua izaten da, eta aurtengoan ere alderdi bakoitzak bere ikuspegia ezartzeko aukera baliatu zuen. Gobernu taldeko alderdiek aurrekontua izatearen onurak azpimarratu nahi izan zituzten. Eta oposizioaren aldetik jarrera ezberdinak agertu ziren. EH Bilduk elkarrekin aritzeko aukera galdutzat eman zela adierazi zuen, ez dituztelako euren proposamenak konstanta hartu. Elkarrekin Podemos alderdiak bi ekarpen txiki egin zituen eta horiek aurrera ateratzeko baiezkua jaso zuenez, aldeko botoa eman zuen.

Maidar Lainez alkatearen iritziz, "aurrekontu estrategikoa eta arduratsua da, Andoango

herritarrak politika guztien erdigunean jartzen dituen". Helburu bikoitzarekin: "Batetik, herritarrek Udala alboan sentitzeko helburuarekin, inor atzean utzi gabe. Eta, bestetik, "Andoaini bultzada eman eta berrakibazioa eragitea. Hala, COVID-19aren ondorioei aurre egin eta, era berean, berrakibazio sozioekonomikoari bultzada ematea".

Marijose Izagirre alkate-ordeak beharrezkotzat jo zuen "andoaindarrekiko, gizarte antolatua-erakiko eta gainerako alderdi politikoekiko aldebiko harremanetan sakontzea, lidergo partekatutako bidez. Gobernu koalizioa osatzen duten bi alderdiek konpromisoa hartu zuten lidergo hori garatzeko buru-belarri".

Beste balorazio bat egin zuen zuen EH Bilduko Andoni Alva-

rezek: "Gure borondaterik onenarekin saiatu gara negoziatzen, baina alperrik. Aurkeztu ziguten ia 22 milioiko aurrekontutik, ez digute euro bakar bat ere mugitzen utzi. Inoiz ikusi ez dugun jarrera bat izan da. Hala ere, bederatzi zuzenketa partzial aurkeztu genituen, hobekuntza batzuk lortzeko helburuarekin. Hori ere ez. Zuzenketa guztiak atzera bota zituzten".

Andoango Udalaren kanaletan ikusgai dago Udal batzarraldia- ren bideoa, alderdien artean egon ziren eztabaidak ikusi nahi dituenarentzat.

Onartu den aurrekontuaren partida nabarmenenak

Auto elektrikoaren aldeko apustua egin nahi du Udalak, eta lau ibilgailu erosteko eta ibilgailuentzako kargatze-puntu bikoitza instalatzeko partidak aurrei-

kusiz. Karrika auzoan komun publiko berri bat jartzeko asmoa badago, eta eraikitzen ari diren Illarramendi industriguneko lurretan udal-pabiloi berria ezartzeko proiektua garatzen hasi nahi dute.

Hirigintzan, Rikardo Arregi kalean biribilgunea eraikitzeari ekin nahi diote. Eta Allurralde kiroldegia handitzeko egitasmoari heldu nahi diote.

Gizarte Zerbitzuetan, askoren artean, gazteentzako alokairu-laguntzetarako partida indartu eta Eguneako arreta zentroa abian jarri nahi dute.

Euskara lansailean Martin Ugalderekin ondareari balioa emateko partida sortu dute, Ugalderekin jaiotzaren mendeurrenarekin bat eginez.

Kulturaren tokiko ondarea garatu eta dinamizatzeko partida bat gehitu dute.

Ekonomia sustapenean, izurriteak eragindako krisia arintzeko partidak sustatuko dira. Eta Salkini laguntza gehigarria bideratuko zaio.

EH Bilduren ekarpenak

Miranda pasealekuan aisialdi gunea egokitzea, Mimendiko arrapala berria, Juanita Alkaingo saneamendua, herriko merkataritzaren digitalizazioarako proiektua, Goiburuko plaza konpontzea edota biolentzia matxistaren biktimei eskeinitako aholkularitza juridikorako zerbitzu bat martxan jartzea proposatu zuen EH Bilduk. Atzera bota ziren alegazioak, eta Gobernu taldeak iradoki zuen egitasmo horiek –edo horietako batzuk– udaberriko gerakinetik bideratu daitezkeela. Plenoan behintzat ez zuten argi berdea ikusi.

22 miliotik gorako aurrekontua

Aurrekontua ia 22 milioi eurokoa bada ere, udaberrian handituko den itxaropenez daude. Izan ere, alkateak plenoan adierazi zuenez, 21.800.000 euroko aurrekontua izango da, "apirilean gerakinetik etor daitekeen diru gehiagoren zain". Gerakina inbertsioetarako erabiliko litzatekeela iragarri zuten.

IA 22 MILIOI EUROKO UDAL AURREKONTUA DA, APIRILEAN GERAKINETIK ETOR DAITEKEENAREN ZAIN

Ordezkarikari politikoaren balorazioak

Maidar Lainez, Alkatea (PSE-EE)

"Aurrekontuak izateak aukera emango du 2021ean zehar egin nahi diren proiektuen eta jardueren zerrenda zabala martxan jarri ahal izatea. Alegia, lizitatzen hasteko, esleitzeko eta Covid-19ak sortutako pandemia atzean uzteko proiektuak gauzatzen hasteko gaitasun ekonomikoa izatea".

Mari Jose Izagirre Alkate-ordea (EAJ-PNV):

"COVID-19aren kolpe latza gainditu ostean, ekintza politikoa eta instituzionala erresistentzia lanetara mugatu duen egoera baten ondoren, suspertze lanetara igarotzeko unea da. Horretarako Andoango gizartearekin lankidetzazko gobernantza sendotu behar dugu".

Tere Santana Elkarrekin Podemos:

"Erraza izan da gurekin negoziatzeko, oso apala izan delako gure jokabidea. Bizi dugun egoerarekin, ez dugu oztoporik izan nahi. Egiten utzi nahi izan dugu. Eskola publikoaren defentsa da gurea, eta horregatik eraberritzerako partida bikoitza eskatu dugu. Plaka fotoboltaikoak ezartzeko beste partida bat eskatu dugu, udal eraikinetan jarriko direnak".

Andoni Alvarez Lete EH Bildu:

"Duela urtebete inbertsio estrategikoa adosteko proposamena landu genuen. Elkarriketa eta elkarlana eskaintzeko abstentzioa eman genuen. Zer jaso dugu trukean? Ezer gutxi. Ez dugu eztabaidarik planteatu, eta halere Udala gobernuari EH Bildurekin akordioak bilatzeari bertogoa eman dio".

"Erronka berria gogotsu hartu dut"

ALEX HUITZI ANDOAINGO EAJ-PNV-KO ZINEGOTZI BERRIA

Urtea hastearekin batera kargua hartu du Andoaingo EAJ-PNV alderdiko ordezkari gisa. Mikel Arregiren tokia beteko du, baita hark betetzen zituen funtzioak ere

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Aiurrik Arantzibia plazan dituen bulegoetara hurbildu da, lehen elkarriketa eskaintzera.

Zer moduzkoak izaten ari dira lehen egunak udalgintzan?

Zeregin berri guztietan bezala, lur hartzen ari naiz: jendea eza-gutu, hitz egin... Eta esan behar dut oso pozik nagoela Udal teknikariek oso harrera ona egin didatelako. Beste alderdietako zinegotzien aldetik ere oso ongi-erori ona izan dut. Beraz, oraingoz behintzat oso pozik nago.

Urteko lehen plenoan zin egin zenuen kargua, Udal aurrekontuak eztabai-datu zirenekoa. Eztabaidatsua izan zen, bai. Nola ikusi zenuen plenoa barrutik?

Eztabaida izatea normala da. Azkenean ezberdin pentsatzen dutenen arteko bilera bat da. Lehenetsunak ezartzerako garaian, normaltzat hartu behar dugu kritika, beti ere errespetu-tik egiten denean. Osasungarria da. Eta bestalde, positibotzat hartu nuen Andoainek aurrekontu bat izatea. Lortu da akordioetara iristea, eta hori eztabaidatik sustatu da.

Euskara lansaileko buru izango zara? Beste ardurarik izango duzu?

Euskara saileko buru izango naiz, eta hirugarren alkate-ordea. Hirigintza, ogasuna, kirola eta gizarte zerbitzuen batzordeetan parte hartuko dut ere.

Mikel Arregiren zereginak beteko dituzu, beraz.

Bai, horixe da.

Zure kurrikuluma oso nazioartera begira dagoela dirudi, eta aldiz sor-terrian zinegotzi aritzeko konpro-misaa hartu duzu.

Bai, kanpoan egon naizenean ere, beti eduki dut begi bat Andoainera begira. Gogoko izan dut hemengo politikagintzaren berri izatea, eta horretarako garrantzitsua da Aiurri bezalako hedabideak edukitzea. Online bidez asko jarraitu baitut aktua-



Alex Huitzi, Arantzibia plazan Aiurrik duen egoitzaren atarian. AIURRI

"KANPOAN METATU DUDAN ESPERIENTZIA ETXERA EKARTZEA ONURAGARRIA DELA DERITZOT"

litatea. Beti egon naiz herriari begira. Kanpoan metatu dudana esperientzia hori etxera ekartzea onuragarria dela deritzot.

Urtea kanpoan emanik ere, data sinalatueta etortzeko ohitura ez nuen sekula galdutako: San Juan zortzikoa Bandarekin jotzeko, Kanpezuko udalekuetara joateko edota Santakrutzez edo inauteriez gozatzeko... Ez naiz inoiz guztiz joan.

Mikel Arregi ordezkatzan duzu, espero zenuen hain azkar zinegotzi izatea?

Egia esan, ez nuen espero hain azkar kargua hartzea. Euskaralditik nator eta oraingoa haren jarraipen modukoa dela uste dut. Alderdiari eskerrak ematen dizkiot nigan konfiantza jartzeagatik. Erronka gogotsu hartzen dut.

Zeintzu dira zure dohainak? Zein ekarpen egiten saiatuko zara?

Alde batetik, gaztetasuna abantaila da. Oso argi daukagu bi mundu daudela. Bat, jendaurrean bizi duguna. Eta bestea, digitala. Mundu digital hori oso kontutan hartu behar dugu udalgintzan. Udalerrri bezala indartsu agertu behar dugu, hortxe baitago etorkizuna. Bestalde, beti kontutan hartu ditut iritzi desberdinak eta desberdintasunetik eraiki behar den ustekoa naiz. Esfortzu gehigarri hori egin beharko genuke desberdinen artean elkar ulertzeko.

Zinegotzia izatea edo politikan izatea ez dago inoiz modan. Zer esango zenioke politikarekin kritiko den kaleko herritarrari?

Lehen esan bezala, kritikoa izatea beti da ona. Nolanahi ere, baikorragoa naiz. Iruditzen zait badagoela politika interesatzen zaion uste duguna baino jende gehiago. Politikagintza egitea ez da soilik politika egitea. Herria egitea ere bada politika: Kultur saioetan, bolondres lanetan, hainbat ekitaldiren antolakuntzan... Bolondresen mundutik nator, eta bolondres asko ditut inguruan.

Zorte on, Alex.
Eskerrik asko.

Garrantzia handiko ziurtagiria

2020 Ecovadis ziurtagiriaren urrezko maila eskuratu du Plastigaur enpresak, berriki. Ardura soziala eta erosketa jasagarria neurtzen duen ziurtagiria da. Andoaingo enpresarentzat "estrategikoa da jasagarritasunaren eta erantzukizun sozialaren aldeko apustua".



Allurralde kiroldegiaren zerbitzuari buruzko argibideak

Udal kirol instalazioak zabalik daude, alde zaureratik hitzordua eskatuta eta gaueko 21:00ak arte zabalik

Erredakzioa ANDOAIN

Jarduera fisikoen esparruan indarrean dagoen arautegi korapilatsua dela eta, Allurralde-tik hainbat argibide eman nahi izan dituzte. Besteak beste, aldagelak eta dutsak erabil daitezkeela jakinarazi dute. Kiroldegi barruan, jarduerak 6 lagunek taldetan egin ahal izango dira, eta beti maskarillarekin. Kiroldegitik kanpo ere, gehienez 6 lagun aritu daitezke elkarrekin.

Andoain eremu gorrian izanik, jakina da Eskola-Kirola bertan behera utzi dutela.

Musukoa

Musukoa edo maskarillaren erabilerari buruz, zenbait interpretazio daude. Andoainean, esaterako, musukoa jantzita daramaten txirrinduzaleak ikus daitezke. Allurraldetik haxe adierazi dute: "Momentuoro erabili behar da salbuespen hauekin: eremu naturaletan, oinezkorik ez dabilen hirigune periferikotan, igerilekuan, baimendutako federatuen entrenamenduetan zein lehiaketetan, eta kanpoan egiten den intentsitate altuko jarduera fisikoko une berezietan".



UDALA

Seinale berriak Leitzaran aldean

Orientazio-seinaleak berritu dituzte, Leitzaran eta Plazaolako naturbideetan barrena. Olagaindik Lizarkola ubidera daraman pasealekuan, bestalde, segurtasuna bermatzeko piboteak eta abiadura murrizteko gailuak jarri dituzte. Egitasmoa aurrera ateratzeko Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako sailaren laguntza izan du Udalak.



Urnietako kiroldegi berriak aurrerakuntza handia izango du 2021. urtean zehar. AIURRI

Urnietako Udal aurrekontu proposamena

Hamar milioi euroko aurrekontua da Urnietako Udalak eskuartean duena. Abenduan eztabaidatu zen ez ohiko Udal batzarraldian, urte berria aurrekontu berriarekin hasteko. Gobernuaren eta oposizioko alderdien arteko ezberdintasunak agerian geratu ziren

Erredakzioa URNIETA

Gabonen atarian onespina eman zioten Urnietan, Udal aurrekontuei. 9.565.217 eurokoa izango da, eta foru ekarpena %10 murizpea espero bada ere, Udalak 420.000 euroko kreditua eskuratuko duela iragarri zuen Jorge Segurado alkateak. Besteak beste, "beharrezkoak diren gizarte laguntzak eta inbertsioak bermatzeko".

Partida garrantzitsuenak

Gizarte-larrialdietarako partida 105.000 eurotik 140.000ra igaroko da. Eta tokiko merkataritza sustatzeko 50.000 euroko partida bat sortuko dute. Ostalaritzari dagokionez, udal tasak ez igotzea eta terrazetako metro karratuen prezioa erdira jaistea aurrakusi da.

Inbertsioen zerrendan, hauexek nabarmendu zituen Udal gobernu taldeak: Erratzuko zubiaren espaloia zabaltzea, Txoritagaingo parkea berritzea, Basotxiki eta Bezkitako landa-bideak ho-

betzea edota ludotekako instalazio elektrikoa hobetzea.

WC publikoa, plazan

Beste iragarpen batzuk egin zituzten, hala nola, WC publikoa San Juan plazaren inguruan edo bizikletak garbitzeko gune baten eraikuntza. Jubilatuen Egoitzaren barrualdea berritzeko asmoa dute, Aldundiaren diru-laguntza

bat jaso bezain pronto. Udal kiroldegia 2021ean azken txanpan sartuko dela espero dute.

Berdintasun teknikaria

Berdintasun-teknikari bat kontratazioa, administrazio elektronikoari sarbidea ematea eta garbiketarako partida handitzea dira 2021erako dituzten beste asmoak.



Ordezkaritza politikoaren balorazioak

Jorge Segurado, alkatea (EAJ-PNV):

"Aurrekontuaren ardatz nagusietako bat konpromiso soziala izango da, eta berretsi egiten dugu COVID-19ren ondorioz bizi dugun egoera konplexu honetan inor atzean ez uzteko ideia. Ildo horretan, gizarte-larrialdietarako partidak handitu egin ditugu, 2020ko 105.000 eurotik 2021eko 140.000 eurotara igarota, hau da, 35.000 euro gehiago. Era berean, 50.000 euroko partida bat sortu da herriko merkataritza babesten eta sustatzen jarraitzeko".

Ainara de Miguel (EH Bildu):

"Udal Gobernu taldeari eztabaidagai izan zitezkeen proposamenak aurkeztu genizkion. Besteak beste, berdintasun teknikaria eskatzen dugu. Genero politiken hutsunea iaz ere ikusi genuen, eta ikusten ari gara abiapuntuan gaudela oraindik. Udal musika eskolaren kofinantzaketa bete dadila eskatzen dugu. Eta parke estaliaren premia atzetik dator".

Herme Gonzalez (PSE-EE):

"Gobernu taldeak 2021. urterako aurkeztu duen aurrekontua ez da Urnietak une honetan behar duena. Sozialki anbizio gutxikoa da, eta nabarmen hobetu daiteke. Horrexegatik aurkako botoa emango dugu. Partida batzuetan diru kopuruak aldatuta ere, aurtengo aurrekontuak ezin du aurreko urteetako kopia eta pega bat izan. COVID-19ak eragindako izurritea oso larria baita. Injustuak dira gure udalerriarekin eta herriarrek".



Guria taberna. AIURRI

Ostalaritza guneen terrazen tasa kenduko diete

Ordezkaritza duten hiru alderdiak proposamen horren alde agertu ziren, urtarileko plenoan

Erredakzioa URNIETA

Urteko lehen Udal batzarraldian ostalaritzako establezimenduei terrazen tasak kentzea adostu zuten. 2021erako ordenantza fiskalak onartu zirenean, tasa horretan %50eko beherapena egitea onartu zen. Udalak adierazi duenez, "herriko ostalariekin bildu ostean eta COVID 19-aren ondorioz pairatzen ari diren egoera gero eta gogorragoa dela ikusita", tasa hori urte amaierara bitarte kentzea erabaki zuen. EAJ,PNV, EH Bildu eta PSE-EE neurri horren alde agertu ziren. Hiru alderdiek, bide batez, sektoreari babesa erakutsi nahi izan zioten.

Markel Carmona Lesaka

Urnietan aurkezpenik behar ez duen mutila da, eta bere familia ere aski ezaguna da. Markelek hezkuntza-arreta berezia behar du bere garapen pertsonalarekin jarraitu ahal izateko. Antza denez, 2020-2021 ikasturterako murriztu egin dira Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza Sailak hezkuntza-premia berezi horiei erantzuteko esleitutako baliabideak. Onarturiko mozioaren bidez, Udalak babesa eskaini zion Markeli eta bere familiari, eta Markelek behar duen arreta jasotzea eskatu zuen.

Zentzugabekeriari men

ZIKLOTURISMOA Urnietako zikloturistak hara eta hona dabilta herrian barrena, hainbat aldiz toki beretik pasa eta ez eratzeko ahaleginean. Itxiera perimetrala kritikatzan dute tinko, "bizikletan goazenok herri batetik bestera ibiltzen ez dugulako inor kutsatzen"

Andoni Urbistondo URNIETA

Nahikoa da Ibilgailuan Azterketa Teknikoko enpresatik Erratzuko zubiraino joatea, edo Erratzuko Zubitik Iturbe altzairu enpresara, dozenaka zikloturistekin topo egiteko. Ordubete eskaseko osteratxo eginda, gainera, lau-bost aldiz ikusiko dituzu. Itxiera perimetralak behartu ditu hori egitera, ezin baita Urnietatik atera. Egia da Xoxokako, Besabiko eta Kaxkarroko aukerak ere hor daudela, baina horiek aldapa gogorrak dira egunero hiru edo lau aldiz egiteko; are gehiago, oraindik otsailean, negu betean gaudela aintzat hartuz. Errepide nagusian Mandazubitik Iruraingo biribilguneraino joan etorrian ibiltzea beste aukera bat litzateke. Baina egia zor, Urnietako kale nagusia zeharkatzea infernu baten parekoa da zikloturistentzat: trafiko handia, dozena erdi semaforo, eta uneoro adi ibili behar bidegurutze guztietan.

Pasa den urtean, arauk Urnietarekin muga egiten zuten herrietara mugatu zituzten zikloturisten irteerak. Gaur, ia denek, itsu-itsuan onartuko lukete halako arintze bat itxiera neurrietan, Hernanira, Andoainera edota Lasartera joateko aukerak ikaragarri handitzen baitu bizpahiru ordu lan saio bat egiteko aukera. Urnietan oso ohikoa da Hernanitik Nafarroako mugaraino doan errepidean itzuliak egitea, oso errepide lasaia delako lan orduetako eremuetatik kanpo. Hainbestera da ezaguna, zikloturisten solasaldietan "tontodromoa", zuloa edo gaztelaniazko tubo hitzarekin ezagutzen dela errepide zati hori. Orain "tontodromoa" Erratzuko industria gunea bilakatu da.

**ORAIN
"TONTODROMOA"
ERRATZUKO
INDUSTRIA GUNEA
BILAKATU DA**



Dozenaka txirrinduzale dabil Erratzu aldean, asteotan. AIURRI



EDU ETXEBERRÍA
ZIKLOTURISTA

"Herriatik ateratzeko debekua ez da justua"


"Urnietako herriar gisa ezin sobera kexatu mendiko eta errepideko bizikletarekin eta mendian nabilelako. Herriatik ateratzeko debekua muga da, batez ere errepidean. Mendiko bizikletarekin edota oinez aukera biderkatu egiten da, leku beretik lau edo bost aldiz pasa gabe. Ez zait justua iruditzen herriatik ateratzeko debekua. Ze arrisku suposa dezake Andoain, Hernani edo Lasartera pasatzea, kilometro batzuk gehiago pilotzeko helburu xumearekin?".

"Tontodromoa" zergatik, galde-tuko diozue zeuen buruari? Ba toki berean bueltak ibili behar duzulako etengabe.

Aiurrik hainbat zikloturisten iritzia jakin nahi izan du, itxiera perimetralaz zein iritzi duten jakin asmoz. Denek men egiten diote, noski, arauari, isun gaiztoen mehatxupean, baina garbi mintzatzen dira herriatik ateratzeko debekua zentzugabekeria latza dela, ulertezina. Ematen duten argudioa ere sinesteko modua da: "Debekuak jartzen dituztenak esan diezagutela ze arrisku suposatzen duen bizikletarekin herri batetik bestera 25-30 kilometro orduko abiaduran pasatzea, gelditu gabe. Hori egitea arriskutsua dela azaltzen badigute, onartuko dugu itxiera. Baina ezin dute azalpen sinesgarririk eman".

**HERRITIK
ATERATZEKO DEBEKUA
ZENTZUGABEKERIA
DA, TXIRRINDUZALE
ASKORENTZAT**


Txirrinduzaleen iritzia



TXELU DEL SOL
ZIKLOTURISTA

"Kirol jardunari trabak jartzea ez da neurri egokia"

"Nire ustez argi geratu da kirol jarduerari trabak jartzea ez dela neurri egokia. Kirolariak direnak, garenok, immunitate handiagoa diogu kirol egiten ez duten herriarrek alderatuta. Eskola-kirola debekatzea edo mugatzea erabaki izana ere ulertezina egiten zait. Zikloturistak garenok dagokionez, ondoko herrira joateko aukerak arnas handia ematen dizu, herri berean irten behar izanak asko mugatzen baitu gure jarduna".



PATXI GALLO ARIZTIMUÑO
ZIKLOTURISTA

"Urnietan ez dago 100 metro laurik, nekoso da entrenatzea"

"Nire ustez zikloturista bat bakarrik herri batean barrena hara eta hona ibiltzeak ez dauka batere arriskurik, eta zentzu horretan, ulergaitza egiten zait herriatik ateratzeko debekua jarri izana. Ondoko herrietara pasatzen uztea eskatzen dut ozen bozgorailu honetatik, gure jardunak ez duelako inor kutsatzen. Gainera, gogoratu nahi nuke Urnietan ez dagoela aldaparik gabeko 100 metrorik, eta horrek aspergarri eta nekoso egiten du bizikletan ibiltzen garenok jarduna".



PEDRO BARAHONA ETA ASIER ZUBILLAGA VICENTE
ZIKLOTURISTAK

"Arriskutsuagoa da herriko kaleetan ibiltzea, herri baino"

"Errepidean ibiltzera ohituta gaudenontzat oso aspergarria da bospasei kilometro eremu mugatu batean bueltak ematen ibiltzea. Kontuan izan Urnietako zikloturistak ia beti Goierri aldera joaten garela, edo kosta aldera, kilometro batzuk pilotze aldera. Ba orain ezin dugu, luzean bost edo sei kilometroko bide laua dago asko jota, eta hortik ateratzen bazara, ba aldapa gaizto samarrak: Xoxoka eta Besabi, Kaxkarro... Bestalde, ez dugu uste bizikletan herrietatik pasatzea arriskutsua denik, ez baikara geratzen. Leku batera joaten zara, buelta, eta inorekin harremanik eduki gabe apenas. Arriskua, beraz, erlatiboa da. Herriko kaleetan ibiltzea, esaterako, askoz arriskutsuagoa da herri batetik bestera pasatzea baino".

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 4

ANDOAIN Kontzertua

Andoainen bizi den Esti Sistiaga piano-jotzailea, Mikel Urdangarin Andoingo musikaria eta Mikel Emezabal Andoingo Udal Musika eskolako irakasleak emanaldi berezia eskainiko dute bi artista klasikoek obrak biziberrituz.

19:00, **Bastero**.

ANDOAIN Erakusketa

Leire Salaberriaren ilustrazio lanez gozatzeko aukera dago, aste hauetan. **Bastero Kulturgunea**. Azken eguna.

URNIETA Matrikulazioa

Urte berriarekin batera, abian dira B2 eta C1 mailako ziurtagiria prestatzeko ikastaro berriak AEK euskaltegian. **Errekalde kalea, 1**.

607 592 864 / urnieta@aek.eus

ANDOAIN Lehiaketa

Berdintasun Sailak kartel lehiaketa deitu du, Martxoak 8aren harira. Ondoko testua azaldu behar da, nahitaez: "Martxoak 8: Emakumearen Nazioarteko Eguna 2021". Sari bakarra banatuko da, 450 eurokoa. Oinarriak Basteron.

Epea: Otsailak 10. Bastero.

URNIETA Lehiaketa

On Manuel Antonio Antia literatur lehiaketaren edizio berria. Dagoeneko irekita dago lanak aurkezteko epea. Haur, gazte eta helduen mailakoa da. **Epea: Martxoak 12. Sarobe**

OSTIRALA 5

ANDOAIN Kontzertua

En Tol Sarmiento musika taldea. 19:00, **Bastero**. 12 euro.

URNIETA Zozketa

Baratze ekologikoen erabileraren zozketa. 12:30, **Urnieta Youtube kanala**.

IGANDEA 7

ANDOAIN Haur antzerkia

Hansel eta Gretel, Grimm anaien klasikoa era dibertigarrian. 17:00, **Bastero**. 4 euro.



Andoingo Udalak aurtengorako antolatu duen ekitaldi-sorta. AIURRI

ANDOAIN Inauteri giroko hitzorduak

Indar handia hartzen ari zen inauteria Andoainen, eta aurtengoan etenaldia egin behar izango da. Halaberharrez, pandemiak gogor jotzen jarraitzen baitu. Inauteriarekin zerikusia duen ekitaldi sorta antolatu du Andoingo Udalak, Bastero Kulturgunean egingo direnak.

Otsailaren 11tik 14ra, kultur jarduerak Bastero Kulturgunean.

ASTELEHENA 8

ANDOAIN Erakusketa

Burdina taldearen eta Udal artxiboaren eskutik. **Otsailak 8-27. Bastero**.

ASTEARTEA 9

ANDOAIN Dokumentala

"Zubiak", Marixabel Lasa eta Ibon Etxezarreta dira protagonista. Bizi-kidetza jardunaldien baitan. 15. orrian. 18:30, **Bastero**.

OSTIRALA 12

ANDOAIN Kontzertua

Aldapeko Basque Latin Jazz, Imanol Iribarren andoaindarraren zuzendaritzapean. 19:00, **Bastero**. 12 euro.

ASTELEHENA 15

ANDOAIN Antzerkia

"Eta hik zer?", elkarbizitzan sakonduz. Informazio gehiago, 15. orrialdean. 18:30, **Bastero**.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****The father**

Helduentzat.

Larunbata, 6: 19:00.

Igandea, 7: 19:00.

Astelehena, 8: 19:00


Ikuslearen eguna.

URNIETA**SAROB****Lur eta Amets**

Haurrentzat,

euskaraz.

Igandea, 7: 17:00.



SINOPSIS

**Lur eta amets**

Zuzendariak: Imanol Zinkunegi, Joseba Ponce. **Gidoia:** Eneko Olasagasti, Carlos Zabala. **ekoiztetxea:** Lotura Films. **Herrialdea:** Euskal Herria (2019). **Generoa:** Marrakzi bizidunak. **Iraupena:** 87 min.

Lur eta Ametsen abenturak Saroben

Lur eta Amets anai-arrebak Euskal Herriko garai ezberdinetan murgilduko dira Baltaxar katuarekin eta Amona Andererekin batera. Lur eta Amets proiektua 2015ean sortu zuten Ikastolen Elkarteak, Kabxiporretak eta Elkar

argitaletxeak, "gure herriaren historiaren irakurketa geure ikuspuntutik berreraiki eta eskuragarri jartzeko" asmoz, eta hori landu zuten ezagutza liburuarekin, ipuin sortarekin eta ondoren etorri zen galdera-erantzun mahai jokorekin.

SINOPSIS

**The Father**

Zuzendaria: Florian Zeller. **Aktoreak:** Anthony Hopkins, Olivia Colman, Imogen Poots, Rufus Sewell... **Herrialdea:** Britainia Handia (2020). **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 97 min.

Zahartzaroaz

Anthony 80 urteko gizon garratza eta bihurri samarra da. Alabak zaintzaile bat kontratatu

nahi dio. Aitak, ordea, uko egin nahi du. Baina memoriak huts egiten dio, geroz eta gehiago.


ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak hirukote
Uxuek otsailaren 4an 6 urte beteko ditu eta Unai eta Jonen urtarillaren 18an 3 urte bete zituzten. Segi hain jator, alai eta zoragarri. Asko maite zaituztegu!



ANDOAIN
Mikel
Urtarrilaren 28an gure etxeko txikiak 10 urte bete zituen. Zorionak Mikel! Muxu asko etxekoan partetik!



ALAMEDA-ANDOAIN-
ZIZURKIL
Manex
Otsailaren 3an urtebete! Zorionak pottoko eta jaso muxu handiak Aizpea ta Anais izebengandik.



ANDOAIN / AIA
Unax Lopetegi
Otsailaren 15ean 15 urte! Zorionak eta muxuak etxekoan, Anerren eta Oinatzen partetik.

Urte askotarako!


Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurra" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan.

diseinua@aiurri.eus

Idatzi urtebetetze-eguna izen-abizenak, herria, eta nahi duzun testua.
Arantzibia 4-5, behea
Etor zaitetz bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.



Ibon Etxezarreta eta Maixabel Lasa "Zubiak" dokumentalaren pertsonaia nagusiak dira. ZUBIAK

Bakea eta bizikidetzatza, Andoainaren hizpide

Andoaingo Udal bizikidetzatza mahaiak "Memoria eraikitzen" zikloa antolatu du. Datozen egunetan "Zubiak" dokumentala eskainiko da Basteron, eta baita "Eta hik zer?" antzerki-foruma. Herriararren parte hartzea sustatu nahi du Udalak

Xabier Lasa ANDOAIN

Bizikidetzatza Mahaiak 'Memoria eraikitzen' izenburuko jardunaldiak antolatu ditu hurrengo egunetarako. Batetik, ETak hil zuen Juan Mari Jauregi ardatz duen *Zubiak* dokumentala proiektatuko da, otsailaren 9an. Bestetik, Antzerki-foruma izango da otsailaren 15ean, *Eta hik zer?* galderari erantzun nahian.

Zubiak dokumentala, Juan Mari Jauregi ardatz hartuta
ETak hil zuen Juan Mari Jauregiaren historia kontatzen du dokumentalak. Bere egile Jon Sistiaga eta Alfonso Cortés-Cavanillasek adierazi dutenez,

hautsitako eta eraikitako zubien inguruko hausnarketa izan nahi du; horretarako, Jauregi alarguna Maixabel Lasaren eta bere senarraren hilketan parte hartu zuen Ibon Etxezarretaren artean sortzen den elkarrizketaz baliatzen dira egileak. Hain zuzen, Lasak Etxezarreta bere etxera gonbidatzen du bazkalatzera; harekin hitz egin nahi du eta bere senarra hiltzeko erabili zituzten arrazoietan sakondu nahi du. Ikus-entzunezkoan, besteak beste, Maria Jauregi, Jesus Egiguren, Xabier Iraola, Ignacio Latierro edo Margarita Roblesen testigantzak entzuten dira.

Dokumentalak ordu eta erdiko iraupena du. Berez, *El final del silencio* izenburuko dokumental sortaren ataletako bat da, Sistia-ga kazetaria irundarrak Movistar+ plataformarentzat atondu zituena; 2019an estreinatu ziren. Sei dokumental dira guztira, eta batik bat, ETA eta berak eragindako biktimak dituzte ardatz ("zerga iraultzailea", Miguel Angel Blancoren hilketa, ETArek hastapenak, berunezko urteak, GAL...). Guztietan, biktimei zein gatazkan eragile izan ziren zenbait eragileei hitza ematen zaie.

Basteron Maixabel Lasarekin solasteko aukera egongo da. Gaztelaniaz izango da proiektzioa.

Elkarbizitzan sakontzeko antzerki-foruma

Eta hik zer? izenburuko antzerki-foruma izango da bigarren ekitaldia, Memoria eraikitzen jardunaldien baitan. Elkarbizitzatza eta adiskidetzaren gaiak landu nahi ditu antzerki-forumak. Hiru galdera plazaratuko ditu, hausnartzeko espazioa eraiki nahian: "Zer gertatu da, eta zergatik?", "Zer egin dezakegu orain?", eta "Zer egin dezakegu etorkizunean errepika ez dadin?".

Elena Aranbarri eta Mai Gorostiaga gidolari eta antzerkilariek gidatuko dute antzerki-foruma. Ekimen honen eskutik, indarkeriak eta gatazka sozial eta politikoei eragindako sentimenduak, kontraesanak era arketipoak lantzea da beren asmoa, Hain zuzen, gure iragan hurbilera begira jarri, eta etorkizun kolektiboa beste ikuspegi batetik begiratzeko aukera ematea. Bi egileek adierazi dutenez, antzerki mota hau "gizarte errealtatea ezagutzeko era eraldatzeko tresna da, non ikusle pasiboa egile eta aktore aktibo bihurtzen den".

Egiturari dagokionez, sei piezez osatzen da antzerkia; bakoitzak egoera zehatzak eta oso ezagunak irudikatzen ditu. Sei zatien antzezpeneren ostean, ikusleek, nahi izanez gero, proposamenak egin ahal izango dituzte, antzeztutako egoera horiek hobetzeko.

Bi orduko iraupena izango du antzerki-forumak.

Otsailaren 15ean izango da, eta ezinbestekoa da izena ematea bertan parte hartzeko. Horretarako, idatzi m.lizarralde@baketik.org korreora edo deitu 605 718 297 telefono zenbakira.

BERTSOA

ATAL BERRIA AIURRIN

Punttuka bertso-eskolarekin lankidetzan, Andoaingo bertsozaleek tartea izango dute Aiurri astekarian, eta Aiurri.eus webgunean. Astero-astero bertsoez gozatzeko aukera izango da, beraz, orriotan. Esker mila, alde zuretik, parte hartuko duten bertsozale guztiei. Goiburutarrek botako du lehena, bertsozaleen gidarietako den Unai Ormaetxeak. Hauxe bertsoa, webgunean ikusi eta entzun daitekeena:

*Egitasmo berri bat
goaz azaltzera
edozein gonbidatuz
parte hartzera
gertakizun berri bat
astetik atera
bertsoz jantziko dugu
eskualde bera
zaletik zalera
orri azalera
nork bere du bere era
ta zu re gai zera
bertso bat osatzeko
gure antzera.*

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 670.

OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.
Urnieta: 943 006 680.
Larrialdiak: 943 461 111.
Osasun Aholkuak: 900 203 050.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 6, igandea 7
Gorospa: Rikardo Arregi kalea, 12.
943 592 415. Andoain.

URNIETA

Larunbata 6, igandea 7
Saborido: Plaza Mañe I Flaquer, 5.
943 576 477. Hernani.



Argazkian, Andoaingo eta Gipuzkoako odol emaileen eragileak agertzen dira, Andoaingo taldeak "Joxe Mari Olazabalen Bidea" saria jaso zuenean 2014an. Ezkerretik hasita, Joxe Usabiaga, Martin Gorostidi, Xabin Urzelai, Antonio Garrido, Jose Antonio San Juan (oroigarria eskuetan duela), Felix Ramirez de Alda, Rikardo Ubarretxena eta Joxe Mari Tolosa. Aurrean, Iñaki Arregi eta Joxe Mari Olazabal. AIURRI

Odol-emaileen elkarteko San Juani agurra

Jose Antonio San Juan Audikana larunbatean hil zen, 72 urte zituela. Azken 25 urtetan Andoaingo odol emaileen elkarteko buru izan da. Joxe Mari Tolosa elkarteko kideak San Juanen jokabide "zuzena eta arduratsua" nabarmendu ditu

Xabier Lasa ANDOAIN

Elkarteko kide den Joxe Mari Tolosak adierazi duenez, "Pertsona erabat zuzena eta arduratsua izan da elkarteko buruzagi gisa; bere bizitzaren zati handi bat eskaini dio odol ematearen ekintza solidarioari".

San Juan Banco Vasconia bankuko langilea izan zen urtetan, eta aurre-jubilazioa hartuta zegoen, ikusmeneko arazoak zituela eta. Azken aldian osasunez gaizki zebilen, eta Tolosak zehaztu duenez, "hil aurreko egunetan, nonbait, kontzientzia hartu zuen

heriotza gertu zeukala. Lehen-bizi bere familiartekoei jakinarazi zien sentimendu hori, eta ondoren, odol emaileen elkarteko kideekin harremanetan jarri nahi izan zuen. Animoak luzatu zizkigun bereziki, elkartean lanean jarrai genezan".

Odola ematearen jaitsiera Andoainean

Gaur egun bederatzi kide osatzen dute Andoaingo Odol Emaileen elkartea. Odol emaileak, berriz, 310 dira guztira herrian. Egoera epidemiologikoa dela eta, gora beheratsua izaten ari da odol emaileen dinamika Andoainean. Tolosak zehaztu ditu zenbakiak: "2020an, orohar, ohiko odol emate kopuruari eutsi zitzaion, 40-50koari, alegia. Nolanahi ere, iazko abenduan eta aurtengo urtarrilean murriztu egin da kopuru hori, hamar bat gutxiago bai. Kezkagarria da datua, eta iruditzen zaigu jaitsialdi horrek zerikusia eduki dezakeela azken aldian Andoaingo herria eremu gorrian sartu izana".

Tolosak ziurtatu du segurtasun neurri guztiak zorrotz betetzen direla odola emateko ekitaldian: "ordutegia ere propio luzatu egin da, jende pilaketarik inondik ere gerta ez dadin".

Tolosak deialdi berezia egin du betiko odol emaileei ez ezik baita ere Andoaingo herritarri ager daitezen hileroko odol emateetara. "Odola beti bezainbat behar izaten baita ospitaletan, nahiz pandemiak jota bizi une honetan. Esku zabalez egin beharreko ekintza da; orain emango duzu, eta beharbada, noizbait jaso dezakezu. Gaur ez dakigu norentzat izan daitekeen nahitaezkoa, hil ala bizikoa; baina bihar, lagun edo familiako gutako edonor aurki daiteke odol horren premian".

Hitzordua, hilabeteko bigarren asteartean

Andoainean hilabeteko bigarren asteartean egiten da odol ematearen ekintza. Arrate pilotalekuko atzealdean izaten da, 16:30etik 20:30era bitarte. Aurrez deitu beharra dago, txanda hartzeko: 943 007 884 telefono zenbakira, 08:30etatik aurrera. Otsailaren 9an izango da hurrengo txanda.

Tolosak adierazi du elkartea osatzen duten kideek lanean jarraitzeko asmoa agertu dutela.

San Juan kasik 25 urtez izan da Andoaingo Odol Emaileen elkarteko buru, lehen esan bezala. Zuzendaritza hartu zuenean elkartea erabat berritu egin zela gogoratu du Joxe Mari Tolosak: "1996an Iñaki Arregi buru zuen taldeak herriko zenbait odol emaileei gonbidapena egin zigun, erreleboa behar zuela adieraziz. 1997ko urtarrilean, hamar bat lagun inplikatu egin ginen abentura horretan. Joxe Antonio San Juan izan zen talde berriko zu-

zendaria. Pertsona jatorra, atsegina eta zintzoa izan da; bikain asko bete izan du egokitu izan zaion ardura, taldea dinamizatzeko asmoz".

Jose Antonio San Juan Audikanaen aldeko hileta elizkizuna asteartean egin zuten, San Martin parrokan.

"JOSE ANTONIO SAN JUAN AUDIKANA IA 25 URTEZ IZAN DA ODOL-EMAIEN ELKARTEKO BURU"



Heizuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas

MATRIKULA LIBREA. 2021

Frantsesa eta ingelesa
A2 - B1 - B2 - C1

Matrikula ONLINE:
Otsailaren 1eko 10:00etatik,
otsailaren 12ko 13:00ak arte
Prezioa: 36,18€

www.eitolosaheo.hezkuntza.net - info@eitolosaheo.net - 943 69 75 60



andoaINDARRA
euskaraz